# Basque Segurtasun Foroa. Segurtasun Integrala eta komunitatea



Segurtasun integralak planteatzen dituen galdera askoren erantzuna komunitate sentimendua sendotzetik, krisian dauden balioak berreskuratzetik eta teknologia egokietan inbertitzetik has daiteke. Eusko Jaurlaritzak Euskadin gidatu nahi du lurralde seguruagoaren ikuspegia.

## Uzt. 16 - Uzt. 17 2026

### Kod. G12-26

**Mod.:**
Online zuzenean Aurrez aurrekoa

**Edizioa**
2026

**Jarduera mota**
Uda Ikastaroa

**Data**
Uzt. 16 - Uzt. 17 2026

**Kokalekua**
Miramar Jauregia

**Hizkuntzak**
Gaztelera Euskara

**Balio akademikoa**
20 ordu

**Webgunea**
http://www.basquesegurtasunforoa.euskadi.eus

### Antolakuntza Batzordea

DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN

Fundación
BBVA

Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

ZIENTZIA, UNIBERTSITATE ETA BERRIKUNTZA SAILA
DEPARTAMENTO DE CIENCIA, UNIVERSIDADES E INNOVACIÓN

# Azalpena

Segurtasun Sailak garatutako parte-hartze prozesurik zabalena da *Basque* Segurtasun Foroa. Urtebetez, EAEko eskualde guztiak zeharkatu ditu, segurtasunaren ikuspegi integral batean inplikatutako profesionalak, teknikariak eta eragileak entzuten. 40 bat talde-bilera horietan komunitate gisa aurkezten zaizkigun mehatxu nagusiak aztertu dira. Besteak beste, mehatxu klimatikoak, herritarren segurtasunik eza, desinformazioak eta albiste interesatuek eragiten dituzten pertzepzio-arazoak, indarkeria matxistak, ziberdelinkuentzia, drogen kontsumoarekin eta trafikoarekin lotutako arazoak, autobabeserako kulturarik eza, autoritate-krisia eta balio komunitarioen galera. *Basque* Segurtasun Foroa Euskadirako Segurtasun Integraleko Plan Estrategikoa garatzeko gizarte gisa aurre egin behar ditugun mehatxu berriak aztertzeko sortu zen.

Uda Ikastaro honek partaidetzaren kultura horretan sakontzen eta irakaskuntza eta erronka sozial berriak partekatzen jarraitu nahi du. 2.000 pertsonak baino gehiagok parte hartu duten prozesuaren isla izan nahi du, eta prozesu hori aldaketa-garai honetara hobeto egokitutako estrategia, segurtasun- eta prebentzio-politiketara nola eramango den azaldu nahi du.

## Helburuak

Segurtasun integraleko erronka berrien egungo argazkia aurkeztea. Gizartea eta inplikatutako eragile horien inguruan erronkak zabaldu eta sentsibilizatzea.

2025 eta 2026 urteetan garatutako Segurtasun Foroaren emaitza nagusien kontu ematea gizarteari. Segurtasun Integralaren kontzeptuak dituen alderdi guztiei heltzea.

## Lankidetza

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
SEGURTASUN SAILA
DEPARTAMENTO DE SEGURIDAD

# Zuzendaritza



### Luis Petrikorena Arbelaiz

Eusko Jaurlaritza, Aholkularia

---

Lehendakaritzako Gobernu Irekiaren zuzendaria (Eusko Jaurlaritza). Irekia partaidetza-atariaren arduraduna eta Jaurlaritza osoan datuak irekitzearen eta gardentasunaren bultzatzailea. Aholkularitzan, komunikazioan eta marketinean 20 urte baino gehiagoko esperientzia duen profesionala. Koordinazio zuzendaria, Plangintza Estrategikoaren arduraduna. Teknologia berrietako aholkularia, Segurtasun Saila.

# Matrikula prezioak

| AURREZ AURRE | 2026-07-16 ARTE |
| --- | --- |
| Orokorra | 87,00 EUR |
| Matrikula murriztua orokorra | 74,00 EUR |
| Matrikula exentzioa | 61,00 EUR |
| Gazte tarifa | 25,00 EUR |

| ONLINE ZUZENEAN | 2026-07-16 ARTE |
| --- | --- |
| Orokorra | 87,00 EUR |
| Matrikula murriztua orokorra | 74,00 EUR |
| Matrikula exentzioa | 61,00 EUR |
| Gazte tarifa | 25,00 EUR |

# Kokalekua

## Miramar Jauregia

Mirakontxa pasealekua 48, 20007 Donostia

Gipuzkoa